

Topalekua

48zk. 2008ko urria

octubre 2008 - n.º 48

pág. 1 y 2: EHUaren Gizarte Kontseiluko osoko bilkurak ordainsari osagarriak eskatzeko bigarren deialdia onartu du

pág.3: EHU-ko 2004ko promozioaren enplegu-tasak gora egin du % 89,8 arte. Langabezikoak, aldiz, % 6,9 arte egin du behera

pág.4: Gizarte Kontseiluak beste hiru proiektu garatuko ditu ehurentzat

Kontseiluak lehenengo Deialdiaren aurka aurkeztutako errekurtsoen %40 ebatzi du

EHUAREN GIZARTE KONTSEILUKO OSOKO BILKURAK ORDAINSARI OSAGARRIAK ESKATZEKO BIGARREN DEIALDIA ONARTU DU

EHUaren Gizarte Kontseiluko azken Osoko bilkurak, urriaren 22an ospatu zena, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, 209/2006 Dekretuaren bidez, zehaztutako ordainsari osagarriak jaso ahal izateko, irakasle eta ikertzaile gisa haien merituak ebaluatzea eskatu ahal izateko II deialdia onartzea erabaki zuen. Deialdia 2007ko urtarrilaren 26an ordainsari osagarria eskatzerik izan ez zuten irakasleei dago z uzendua.



(Más información en la página 2)

EHUAREN GIZARTE KONTSEILUKO OSOKO BILKURAK ORDAINSARI OSAGARRIAK ESKATZEKO BIGARREN DEIALDIA ONARTU DU

funtzionarioa bai administrazioak kontratatutakoa edo lan-kontratukoa bada. Horretarako, aipaturiko Dekretuak biltzen dituen eskakizunak bete beharko ditu eta baita UNIKUALek (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia) egindako ebaluazioa gainditu izana.

Hiru mailako osagarri daude: A maila, bikaintasuna saritzeko; B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza baloratzen dituen, eta C, Euskal Herriko Unibertsitateari eskainitako lan profesionala saritzen duena. Azken maila horrek, gainera, bi tramu ditu: C1, Unibertsitatean 3 urtez lan egin izana eskatzen duena, eta C2, Unibertsitatean zazpi urtez lan egin izana eskatzen duena.

Gizarte Kontseiluaren adostasunak dio, EHAOan deialdia argitaratu denetik, irakasleek bi hile izango dituztela Gobernu Kontseiluaren aurrean —UNIKUALi bidaltzea zehazki eskatzeko— eskatzea haien merituen ebaluazioa eta dagozkien osagarrien esleipena. UNIKUALek meritua ebaluatutakoan, eta EHUKo Gobernu Kontseiluaren proposamenaren ondoren, Gizarte Kontseiluak, banaka esleituko du irakasle bakoitzari dagokion osagarriaren zenbatekoa.

209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, UNIKUALek onetsitako ebaluazioen protokoloa eta haiekin lotutako araudi osoa aztertu eta gero onartu zuen Bilkurak Deialdia. Deialdiaren oinarri osagarriak eta ordainsari

osagarrien tramuetan sartzeko eskakizunak EHAOan argitaratuko dira (2008/11/19).

Bilkurak lehen deialdian esleitutakoaren aurka aurkeztu ziren 700 errekursoetatik ia % 40 ebatzi zituen.

Ikasketa osagarriak

Bestetik, Kontseiluak EHUKo ikasketa osagarrien 2008-2009rako hiru ikastaroren matrikula-tasak ere onartu zituen: CAD/CAE-Ingeniaritza, Kalkulua eta Elementu finitu bidezko Zenbaki Simulazioko Ikastaro aurreratua, kreditu bakoitzeko 30 euroko matrikula izango duena (20 kreditu); “Cuestiones de Genero y Aplicación de Planes de Igualdad en la Administración Pública y en Empresas Privadas” ikastaroa, 11 euro kreditu bakoitzeko (16 kreditu), eta “Escuela de Métodos de Investigación Social Aplicada” ikastaroa, 40 euro kreditu bakoitzeko (4,7 kreditu). Giza Zientzietan aurregraduko berariazko tituluari dagokionez (Esperientzia ikasgelak), matrikularen tasa 9,81 eurotan finkatu da kreditu bakoitzeko.

Azkenik, Kontseiluak onetsi zuen EHU AZKUE Fundazioaren bazkide sortzailea izatea, 1.000,00€-ko ekarpenaren bitartez; baita Euskarako Errektoreordea Unibertsitateak erakunde horretan izango duen ordezkari izatea ere.



EHU-KO 2004KO PROMOZIOAREN ENPLEGU-TASAK GORA EGIN DU % 89,8 ARTE. LANGABEZIKOAK, ALDIZ, % 6,9 ARTE EGIN DU BEHERA


Joseba Azkarragak, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Kontseilaria, Juan Ignacio Pérezek, Unibertsitateko errektorea, eta EHUko Gizarte Kontseiluko Presidentea den José Miguel Martínez Urquijok, uztailaren erdialdean aurkeztu zituzten 2004ko promozioari zegozkion Tituludun Pertsonen Merkatuaren zazpigarren Behatokiaren emaitzak. Ekimena Unibertsitatearen gizarte ordezkartzaren organoak eraman zuen aurrera eta jadanik Euskal Herriko Unibertsitateko tituludunen zazpi promoziori egin die elkarriazketa. Ikerketak ekarritako datu nagusiak hauek dira:

- Enplegu-tasa %89,8koa da, halako ezaugarriak aztertzen hasi zenetik, 1998an, neurtu den handiena. Iazkoaren aldean, 3 puntu hazi da.
- Jarduera-tasa % 96,5ekoa da, goranzko joerarekin (+1,6 puntu portzentual), baina azken promozioetan egonkorra da.
- Langabeziaren tasa %6,9koa da. Ondorioz, 2,7 puntu jaitzi ditu aurreko promozioarekiko eta 4,6 orain zazpi urtekoarekiko. EAEko 25 eta 34 urtekoen langabeziaren tasatik gora dago, 2,8 puntutara (2007ko laugarren hiruhilabetean % 4,1ekoa izan dena).
- Enpleguaren kalitatearen adierazleek eboluzio positiboa adierazten dute. Hirugarren trebakuntzan sartutako enplegua (%83,7) 1,5 puntu igo da aurreko urtearekiko, eta 11 galdetutako lehen promozioarekiko. Enplegu egonkorak (% 54,5), 3,6 puntu egin ditu gora; orain sei urte lortu zena lehenengo aldiz gainditu da.
- Unibertsitateko 10 gaztetatik 9k Euskal Autonomia Erkidegoan aurkitu du lana.
- Gizonezkoen eta emakumezkoen lanen barneratzea eta kalitatea desberdina jarraitzen dute izaten, baina tasa eta ratio orokorretan zeuden aldeak karrera gehienetan ez dira jadanik hautematen.

Balorazioa

Gizarte Kontseiluaren presidentea den José Martínez Urquijok berak presiditzen duen organoaren poztasuna jakinarazi zuen Inkesta zazpigarren urtez egin delako eta datu fidagarriak eta aztergarriak ematen dituelako errealitatearen inguruan. Gainera, Kontseiluarentzat bereziki interesgarriak diren hainbat datu nabarmendu zituen:

- Lan-bizitzara igarotzea: Positiboa da tituludunei inkesta egiten hasi zaienetik euren lehen enplegua Kontaktu pertsonalen edo senidekoen bitartez lortu dutenak 12 puntu portzentualetan jaitzi izana (ez dugu ahaztu behar modu horretara sare sozial hedatuagoei lana ematen zaiela). Modu garrantzitsuan areagotu dira, ordea, euren lehen



Lan txertatzea.

Lan egoera graduatu eta ondorengo hiru urtetan.

enplegua Unibertsitatearen bitartez edo araututako praktiken bitartez, eta Internet moduko bide berriaren bitartez.

- Unibertsitatearen balorazioa: Ikasketak bukatu eta hiru urtera, gehienek modu positiboan baloratzen dute jasotako trebakuntza. Horrela, letik 8rako eskalan, 5,27 ematen diote. Bereziki, oinarritzko ahalmenei emandako nota altua —taldeko lana eta erabakiak hartzeko gaitasuna, esaterako —Gizarte Kontseiluak bere Plan Estrategikoaren esparruan egin zuen *Competencias Demandadas por la Sociedad al Alumnado Egresado* ikerketan identifikatu zirenak eta gure web orrian irakur daitezkeenak (www.gizartekontseilua.com).
- Hobetzeko arloak: Hainbat arlo hobetzea beharrezkoa da, hizkuntzetan eta gaitasun informatikoetan trebatzea, esaterako, aurreko balorazioak baino hobeak badira ere, nota baxuak jasotzen dituztenak oraindik ere.
- Asebetetze-maila: 2004an Unibertsitatea utzi zutenak, oro har, pozik daude euren Unibertsitatearekin eta **punturik gehien ondorengo lau atalei** esleitzen dizkiete: ezagutzak (6,2), trebakuntza teorikoa (5,9), liburutegiak eta ikasgelak (5,9) eta irakasleenganako irisgarritasuna (5,8). Asebetetze-maila txikiagoa da, hala ere bikaina, praktiken eta laborategien gelentzat (4,9), informatikakoentzat (4,7) eta trebakuntza praktikokoentzat (4,6).

Ondorioak

Presidenteak adierazi zuenez, lehen inkestaz geroztik bildutako datuek hauxe adierazten dute:

- **Lan barneratzearen maila altua da eta enpresek behar bezala baloratzen dute Unibertsitatearen irakaskuntzak.** Horrek, EHU gure gizartearen balio nagusietariko bat

(Continúa en la página 4)

**GIZARTE KONTSEILUAK BESTE HIRU PROIEKTU
GARATUKO DITU EHUARENTZAT**

EHUren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, uztailaren 17an Bilbon ospatu zena, Euskal Herriko Unibertsitatearentzat beste hiru proiekturi ekitea adostu zuen. Proiektuak 2008ko Plan Eragilearen barruan daude, Gizarte Kontseiluaren 2007-2010 Plan Estrategikoaren barruan. Ikasleen berrikuntzarako eta ekintzailetzarako duten gaitasuna, gizartearekin erlazionatzeko ereduaren definizioa eta unibertsitateko zerbitzuen jardueren adierazleen sistema baten sorrera landuko dute.

Aipaturiko lehen proiektuarentzat, ikasleek Berrikuntza eta Ekintzailetza garatzeari zuzendutakoa, 60.000 euro esleitu dira, eta, haren xedea Euskal Herriko Unibertsitateak arlo horietan ikasleak trebatzen laguntzeko plana diseinatzea da, biziki garrantzitsuak baitira egungo ingurune sozioekonomikoan eta, aldi berean, titulazio guztietan haiek sustatzeko formula berritzaileak diseinatzea ere bai.

Bigarren proiektuari dagokionez, 30.000 euroko laguntza izango duena, EHUaren eta inguruko gizartearen eta ekonomiaren arteko harremanak erraztea da haren xedea. Gainera, gaur egungo unibertsitatearen erronken eta elkarrekin aurki ditzakegun unibertsitate-ereduen inguruan hausnarketa erraztea ere bai.

Azken proiektuak beste 60.000 euro jasoko ditu eta haren xedea EHUak gizarteari eskaintzen dizkion unibertsitateko zerbitzuen jardueraren adierazleen,

erabilitako baliabideen, emaitzen eta asebetetzeen sistema bat sortzea da. Emaitza orokorrak ere adieraziko ditu, zerbitzu bakoitzeko ere bai, eta etorkizuneko lan-ildoak zehaztuko ditu, sistema bera hedatzeko.

Elkarlanerako diru-laguntzak

Bestetik, Gizarte Kontseiluak unibertsitatearen Eusko Jaurlaritzaren Departamentuen artean Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak atera dituen Elkarlanerako 125 eta Hezkuntza Ministerioak atera dituen 8 diru-laguntza banatzea onartu zuen. Banaketa egiteko, G9 Unibertsitate-Taldeak onetsitako ekoizpen zientifikoko baremoen arabera ordena jarraitu zen. Gainera, diru-laguntzen % 30 deialdiaren baldintzak betetzen zituzten eta Departamentuen arteko banaketatik kanpo gelditu ziren ikasleentzat gorde zen.

Osoko Bilkurak, gainera, Ebaluazioko Euskal Agentziari Uniqualek ebaluazio-prozesuen ebazpenaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoen inguruan ebazpenak Gizarte Kontseiluari bidaltzeko eskatzea adostu zuen eta, aldi berean, Uniquale Zuzendaria Osoko Bilkurara hurbiltzea eskatu zuen, ebaluazio-prozesuaren inguruan informatzeko.

Azkenik, Osoko Bilkurak Euskal Zuzenbide Zibileko Ikasketa Osagarrien ikastaroaren matrikula-tasak onetsi zituen: 50,00 € kreditu bakoitzeko (20 kreditu).

(Viene de página 3)

dela egiaztatzen du, eta baita bizigarri teknikoak, intelektuala eta sormeneko ere ematen diola hari, aurrera egiten jarraitzeko.

- Lan merkatuan sartzeko bideak sendotzen jarraitu beharra dagoela, Unibertsitatearen eremutik; horretarako, **EHUko etorkizuneko tituludunek lan bizitzara igarotzeko orientabide izan nahi duen, enpresen eta erakundeen aldetik, unibertsitate-tituludunek lehen enplegua eskatzeko behatokia** Esortu du Gizarte Kontseiluak. Aipaturiko Behatokia Kontseiluaren Web orrian ere ikus daiteke eta lana nola bilatu, bilatzeko erremintak, hautagai nola aurkeztu, eta halako informazio praktiko ugari biltzen ditu.
- Badira hobetzeko arloak eta haietan ahalik eta azkarren egin beharko da zerbait, tituludunen

irritiz, hauek: **praktikak enpresatan, atzerriko hizkuntzatan** trebatzea, **informatikako geletako ekipamendua** eta **gela praktikoak etalaborategiak**.

- Bukatzeko, eta *El profesional flexible en la Sociedad del Conocimiento*-ren inguruko Reflex txostenak dioena jarraituz, beharrezkoa da Unibertsitatean lortzen diren lanpostuak eskatzen dituen ahalmenak sakonean aztertzea, trebakuntza lan merkatuak eskatzen dituen gaitasunak lortzerantz zuzentzeko. Gizarte Kontseiluak, egin du dagoeneko EHUak eskaintzen dituen lau titulazioren inguruko ikerketa –Ingeniaritza Industrial, Filologia, Psikologia eta Kimika- eta nahi duenaren eskura jartzen ditu, agintari akademikoen eta gizarte osoaren eskura, haien ondorioak, arlo horretan gauzak argitzeko.